

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/2/4 | 337



"Hizkuntza gatazka agerian jarri behar dugu"



Jexux Larretxea



Nestor Ardanaz



Euskaltube bizirik!

Euskara,
integra $\angle$ iorako
bide



Aiora Zulaikarekin solasean



hirukide
gainberri
jesuitinak
eskolabioak

943 673 948
www.hirukide.org



KALITATEZKO HEZKUNTZA
TOLOSAN




PLAN RENOVE LEIHOETAN



Leihopro
ALUMINIO - PVC

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC - EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



graduazio
guztientzat
armazoiak + kristalak

77€

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA



galtzaundi
euskara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxexipia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi

Idazkaria: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Beraste-gi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaz-tegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:
Euskara, integraziorako bide

Euskaldunak mundura eta mundua Euskal Herrira. Pertsona adina errealitate eta arrazoi daude norberaren herria uzteko. Lurraldez aldatzearekin bat, kultura eta hizkuntza aldaketak etorri ohi dira. Norberak bere hizkuntza eta kultura ez ditu ordea zertan alboratu. Horren erakusle gu geu gara.

8-11. orrialdeak

Aiora Zulaika (Lasarte-Oria, 1975), duela 12 urtetik Zerkausi kale eguzkitsuan bizi da. Lehenik etxea erosi zuen eta on-doren, bikotekidea ere Tolosan aurkitu zuen. Arte Ederretan lizentziatua, Ttakun Euskara Taldeko partaide izanik, herrian antolatzen zuten euskara maratonia zela medio topo egin zuen ondoren taldekide bihurtuko ziren pailazoekin.

Elkarrietzeta: Aiora Zulaika

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Galtzaundi eta Garbiñe Biurrun	4-5
	Normalizazioa: "Hizkuntza gatazka agerian jarri behar dugu"	6-7
	Eskualdeko albisteak: Jexux Larretxea	12-13
	Kultura: Nestor Ardanaz	18-19
	Zintzilik: Euskaltube bizirik!	17

Akatsak zuzentzen
336. alean sagardotegien gehigarrian Garmendia izeneko azaldu zen, ez dago horrelakorik.
Barkatu sortutako eragozpenak.

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua



Galtzaundi Aldizkaria eta euskarazko beste 63 hedabide

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaud egingako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albistea eta infor-

mazioaren haritik, entretanimendutik, gertukotik, saketik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hiztun komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zerregina. Ez da hau ukatuko duenik eta hala ebazten da behin eta berriz erakunde

publiko eta alderdi politiko gehien euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburutan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohituta gaude zailtasunean jarduten, gure hizkuntzaren izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari

dira ixten munduan, hedabide historikoak, ospetsuak, gureen aldean handi eta indartsuak... Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garelako, bai euskal kultura, bai euskarazko heda-

bideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoagoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzera gatoz.

Gure gizartearen garapena ezin delako porlana eta azpiegitura handien garapenari lotu. Adibidez, Euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du. Errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna bermat dezake. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

Pentsioen erreforma

Erreforma honen zehaztasunak hausnarketa honetatik kanpo utziko ditut, bere jatorria eta helburuak aztertzea interesgarriagoa iruditzen zaidalako.

Batzuek diote guztiz beharrezkoa dela pentsio publikoen sistema erreformatzea Europar Batasunean. Orain gutxi horrela gomendatu zuten, Espainian, ahots batzuek (González Gubernu Presidente ohiak eta ehun ekonomialari talde batek, besteak beste). Hauek arrazoitzen dute sistema jasangarria, bidezkoa eta gardenen lortu nahi dutela, oraindik indarrean dagoen sistema bidegabea edo injustua delarik, haien ustez. Talde honen helburuak, beraz, sistema justuagoa lortzea (pentsioak kalkulatzeko lan-bizitza osoko kotizazioak hartuz) eta sistema jasangarria (biztanleriaren hazkundeari egokitu). Helburu horiek lortzeko proposatzen dituzten neurrien ondorioak eza gutzen ditugu: pentsioen diru kopurua murriztea; beranduago erretiratzea; pentsioen bilakaera ekonomiarik lotuta egotea.

Estatutik kanpo ere entzuten dira horrelako ideiak. Europar Batasuneko Batzordeak honetaz hausnartu zuen 2009. urtean. Pentsioen sistemak definitzerakoan biztanleriaren zahartzea eta krisi ekonomikoaren ondorioak aintzat hartu behar direla dio Batzordeak eta, behar diren erreformek finantza publikoen jasangarritasuna hobetu behar dutela, zehazki, erretiroaren adina atzeratuz.

Espainiako Gobernuak ere antzeko argudioak erabili ditu az-

ken hilabeteotan eta haxe izan da negoziazioetan mantendu duena.

Zorionez, bestelako ahotsak, argudioak eta proposamenak entzuten dira. Unibertsitatetik eta sindikatuetatik beste ikuspegi bat iristen zaigu. Hauek diote, arrazoi handiz, datorren erreforma ez dela berria eta erabilitako argudioak ere orain urte batzuk erabili zirela pentsioen sistemaren porrota iragarri zenean. Aditu hauek ere erreformaren joera neoliberalak salatzen dute eta pentsiorik altuenen pribatizazioa suposatuko duela.

Ez dut nik ukatuko pentsio publikoen sistemak erreforma sakon bat behar duenik. Horrela behar da sistema mantendu ahal izateko: errealitate berriari egokitu behar zaio. Baina ideia hau helmuga izan beharrean abiapuntua besterik ez da: helburu hori erdiesteko behar diren erreformak zein diren erabaki behar da.

Nire iritziz, pentsio publikoen sistema berritu behar da Konstituzioaren aurreikuspenekin bat egiteko. Konstituzioak dio, besteak beste, pentsioen sistemak bermatu beharko duela gizarte-laguntza eta gizarte-prestazioak aski izango direla beharraldie-tarako eta pentsio egoki eta aldi-aldian eguneratuen bitartez, ekonomia-askitasuna bermatuko dietela herritarrei zahartzaroan.

Bistan da, gaur egun, pentsioak oso baxuak badira ere, datorren erreformarekin oraindik baxuagoak izango direla. Bistan da, baita ere, erretiroaren adina atzeratzen bada, gazte jendearen lan merkaturatzea atzeratu



Garbiñe Biurrun
Epailea

Lerro hauek argitaratzen direnerako Gizarte Segurantzaren Pentsio Publikoen erreformaren ildo nagusiak finkatuta egongo dira. Badirudi, horretarako Espainiako sindikatu nagusiek eta Gobernuak akordio bat lortuko dutela, erreforma horrek Gorteetan egin behar duen ibilbidea erraztuz. Halere, nahiz eta pentsioak aipatu, orokorrean, orain arte erretiro-pentsioari buruzko datuak ezagutu ditugu soilik eta ez beste pentsioei buruzkoak (alarguntza pentsioen erreformaz, adibidez, ez dakigu ezer ez, ezta erreformatu behar den ere).

egingo dela, eta honek, dudarik gabe, sortuko duela egoera sozial injustuago bat.

Beraz, zein erreformak behar dira? Konstituzioaren aginduen arabera, alde batetik, pentsio publikoen finantzaketa berrikusi behar da eta, zati batean, zergen bitartez finantzatu (horretarako, zerga-sistema ere birpentsatu egin beharko da); bestetik, langile berriak eta kotizatzaile berriak lortu behar dira (emakumezkoak, bekaunak...) eta lurpeko eko-

nomia agerian utzi.

Erretiroaren adinari buruz, zer esan? Bere atzerapenak ondorio latzak ekarriko ditu: itxaropen askoren frustrazioa; gazteak lan merkatuan beranduago sartzea; pertsona guztion bizitzaren gozamenaren atzerapena edota ezintasuna.

Beraz, martxan dagoen erreformak ez die erantzuten pentsio publikoen sistemak dauzkan gabezi; aldez, gabezi horiek areagotzen ari da.

“Hizkuntza gatazka agerian jarri behar dugu”

Euskal Herrian Euskarazek manifestazio nazionala antolatu du otsailaren 12rako Donostian, “Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe” lelopean. 17:00etan, Bulebarretik abiatuko da aipatu manifestazioa. Ekimen horren harira, Euskal Herrian Euskaraz herri mugimenduko kide Xabat Laborde elkarriketatu du Galtzaundik. Bere esanetan, estatuek asimilazio prozesua dute indarrean eta, horren aurrean, “hizkuntza gatazka agerian jarri behar dugu euskaraz bizitzeko hautua eginez”.

Igor Mujika



Zertarako antolatu duzue manifestazio nazionala?

Euskal Herrian indarrean diren hizkuntza politikoi erantzun bat emateko eta berreuskalduntzeari begira garrantzitsuak diren aldarrikapenak kaleratzeko antolatu dugu manifestazio nazionala. Gaur egungo eredu, legedi eta hizkuntza politikekin euskarak ez ditu behar bezainbesteko au-

rrera pausoak ematen eta erantzule politikoak interpelatu egin behar ditugu. Hizkuntza politiketan aldaketak bultzatzeari begira garrantzitsuak da herritarrek mobilizatzea. Euskaldunon aldarrikapenak sentiarazi egin behar dizkiegu erantzule politikoei, Euskal Herriaren berreuskalduntzeari begira pausoak eman ditzaten eta euskararen aurkako

erasoen aurrean herri oso bat aurrez aurre izango dutela jakin dezaten.

Eta, bi hitzetan, zein ezaugarri jaso behar ditu hizkuntza politikak?

Hizkuntza politikak bat eta bakarra izan beharko du. Euskal Herriaren berreuskalduntzea izan behar da bere helburua. Hizkuntza hegemoniko bat eta hizkuntza menpeko bat ditugun adinean, alor guztietan euskarari lehentasuna emango dion hizkuntza politika behar dugu. Hizkuntza politika horrek Euskal Herrian erabakia izan behar du, kanpoko esku-sartzerik gabe. Azken finean, ofizialtasuna edukiz jantzi behar dugu. Izan ere EAEn euskarak badu nolabaiteko estatus ofiziala baina horrek ez du bermatzen belaunaldi berriak euskalduntzea, ezta ere hizkuntza eskubideak administrazioekin ditugun harremanetan bermatuak izatea,...

Manifestazioari begira publiko egin duzuen manifestuan asimilazio hitza erabiltzen duzue.

Euskara Euskal Herriko hizkuntza izatetik egoera minorizatuan egotera pasa da. Euskal nortasunaren zutabe nagusia den euskara bigarren mailako hizkuntza bilakatzeko apustua egin dute estatuek. Asimilazioa estatuek kontzienteki indarrean duten politika da eta bere helburua euskaldunok espainiarrak eta frantsesak bilakatzeta da. Aspalditik datorren prozesua da eta oraindik indarrean dago. Asimilazio prozesu horren ondorioz

hizkuntza hegemonikoak ditugu eta euskaldunok elebidunak izatera behartuak izan gara. Hizkuntza hegemonikoak gaztelera eta frantsesa izanik, bi hizkuntza horiekiko sumisio egoerak bultzatu dituzte estatuek. Euskaldunok asimilazio prozesu horretaz kontziente izan behar gara, erderekiko jarrera sumisoak -6 euskaldun egon eta erdaldun bat etorrita, guztiak erdal hiltun bilakatzeta, adibidez- alboratzeko. Horren aurrean hizkuntza gatazka agerian jarri behar dugu euskaraz bizitzeko hautua eginez. Izan ere, orain arte elebitasunaz hitz egiten aritu direnak erdaldun elebakarren eskubideak aldarrikatzen baino ez dira aritu.

Euskararen aldeko diskurtso asko gatzeleraz egiten dira.

Euskara bultzatzeko hizkuntza menperatzailea erabiltzea kontraesan handia da. Euskara bultzatu nahi badugu euskaraz bizitzeko hautu kontziente bat egin behar dugu eta esparruz esparru hori landu behar dugu. Gure artean egin dezagun euskaraz! Oso kritiko gara abertzale

munduko alderdi, sindikatu eta eragile multzo garrantzitsu batekin. Izan ere, beraien diskurtsoan euskararen aldeko mezuak egon arren, praktikan, gehiegitan esango nuke, jotzen dute hizkuntza menperatzailearengana, salbuespenak salbu. Herritar gehiagorengana iristeko bidea dela esango dizute baina guk argi daukagu abertzaletasunaren baitan euskararen gaia bigarren edo hirugarren mailan egon dela.

Eta euskara ikasi ez dutenekin, galdu dutenekin nahiz gure herrian bizitzera etorri berri direnkin nola egin lan?

Erderekin Euskal Herri osoan bizi daiteke. Euskara jakitea al-diz ez da beharrezkoa. Eskubide batera mugatzen da: euskara jakiteko edo hitz egiteko eskubidea duzu baina ez duzu beharrik. Euskaraz aritzeko, beraz, esfortzu bat egin beharra dago, hasteko, ikasi egin beharko delako. Esfortzu hori egiteak merezi duela erakutsi behar dugu. Euskara Euskal Herria ulertzeko ezinbesteko tresna dela erakutsi behar

diegu, euskal nortasuna, kultura,... sentitzeko beharrezkoa dela erakutsi behar diegu. Azken finean, euskarak irekitzen dituen ateak sentiarazi behar dizkiegu. Halaber, euskara ikasteagatik ez litzatekeela diru ordainik eman behar uste dugu. Doakoa izan beharko luke. Beraz, herritarrek euskara ikastera bultzatu behar ditugu eta ikaste prozesuak, di-ruari dagokionez, doakoa izan behar du.

Manifestaziora itzuliz, Txillardegi omenduko duzue bertan.

Jose Luis Alvarez erreferente bat izan da euskalgintzan. Bera izan zen, beste batzuen artean, EHEren sortzaileetako bat. Euskalgintzari eta euskararen munduari izugarritzko ekarpena egin dio. Azken finean, bere bizitza osoan erakutsi duen jarrera aldarrikatzaile, borrokalari eta euskaltzalea goraipatu nahi dugu. Beti saiatu da berreuskalduntzea lehentasunezko ildo bezala lantzen. Bere eredu ondorengo belaunaldiek presente izan dezaten ibilbide oso bat irudikatu nahi dugu. 

ANTZA



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Euskara, integratzaile bide

8

Euskaldunak mundura eta mundua Euskal Herrira. Pertsona adina errealitate eta arrazoi daude norberaren herria uzteko. Lurralde aldatzearrekin bat, kultura eta hizkuntza aldaketak etorri ohi dira. Norberak bere hizkuntza eta kultura ez ditu ordea zertan alboratu. Horren erakusle gu geu gara. Euskaldunok harrotasunez ikusten ditugu, esaterako, Ameriketako Estatu Batuetako Idaho estatuko hiriburu Boisen euskal komunitateak antolatzen dituen euskal jaiak. Poztu egiten gara, halaber, bertan euskaraz irakasten duen ikastola dagoela jakitean. Baina, nola egin lan beren herriak utzi eta gurera etorri direnekin?

Igor Mujika

“Euskara aniztasunean” lelopean, hitzaldi eta mahai-inguru sorta antolatu ditu Euskara Elkarteen Federazio Topaguneak Durangon, eta bertan izan da Galtzaundi. Bertatik ateratako ondorio nagusia eman dugu titularra: euskara integratzaile bide da. Euskal Herrira etorri direnekin euskaldunok joan-e-

torriko bidea dugu egiteko. Zer jaso eta zer eman dugu. Jaso: beraien kulturarekiko ezagutza. Eman: gure herria eta kultura ulertzeko ezinbestekoa den hizkuntza. Izan ere, aberastasuna da kultur aniztasuna, eman eta jasotakoa inposizioz baino elkar ulertzetik eta errespetutik egiten denean.

Bartzelonako Unibertsitateko katedradun eta *Grup d'Estudi de Llengües Amenança* deseko lehendakari Carme Junyentek gaineratu bezala, “gu ez gara kolonizatzaileak eta hobe da identitate bat gehitzea, identitate bat kentzen saiatzea baino”. Eta, hausnarketa horrekin berriro burua Boiserako munduko edozein euskal etxetara doakigu, munduan barrena bizi diren euskaldunek lortu badute beren zeinu identitateak mantenduz herri berrietan integratzea, zergatik Euskal Herrira etorri direnekin ere joan-etorriko bide hori lantzen ez?

Integratzaile bide da beraz hizkuntza eta, gure kasuan, euskara. Iritzi horretakoa da Carme Junyent. Bere esanetan “paperik ez izan arren, bertako hizkuntza ikasitakoan nazionalitatea ere eskuratu egiten da”. Carme Junyenten hausnarketak balio gehitua du euskaldunon kasuan, espainiar eta frantses administrazioek emandako nortasun agiritan ez delako euskal herritarasunik aitortzen. Katalunian etorkinak eta hizkuntza ardatz hartuta egindako ikerketa baten ondorioaren berri ere eman du Carme Junyentek: “erderaz hitz egitean bazterketa eta urruntasuna sentitzen dute etorkinek. Aldiz, lehen hitza katalanez egindakoan etorkinak bertakoago sentitzen dira”.

Bide horretan euskaldunok badugu zeregina. Izan ere, “hizkuntzak ikasi egin behar

dira eta, guri, irakastea dago-kigu”. Hala adierazi du Carme Junyentek eta, hari beretik tiraz, “etorkinei euskara zuek ez badiezue erakusten, inork ez die erakutsiko”, gaineratu du.

Migrazioa aztergai

Hori erakutsi du ere Julen Zabalo eta Iker Iraola Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek hizkuntza kontuan hartuta Hego Euskal Herrian XX. mendean emaniko bi migrazio aldiaren inguruan egindako azterketak. Izan ere, euskal nazionalismoak hizkuntzari eta etorkinei emandako garrantziak euskararen zabalkundean eragin duela erakutsi du, besteak beste, azterketa horrek. XX. mende hasierako euskal nazionalismoaren arabera, euskal arrazarena zen euskara. Ondorioz, Hego Euskal Herria –eta, batik bat, Gipuzkoa eta Bizkaira– etorritakoak ez ziren euskaldundu.

XX. mende erditik aurrera, ordea, arraza baino hizkuntza eta lurraldea hartuko dituen euskal nazionalismoak eta, pentsamendu aldaketa horrekin batera, euskalduntzea bultzatzeko egitasmo konkretuak landuko ditu: gau eskolak, ikastolak,... Ondorioz, garai horretan Hego Euskal Herria etorritako batzuk –eta, beren seme-alabak ere– euskaldundu egingo dira.

Auzoko egitasmoa

Hain justu, “euskaratik urrun direnak euskarara hurbiltzeko”

helburuarekin, Auzoko egitasmoa aurkeztu du Topaguneak. Egitasmo honen helburuak ondokoak dira:

- Euskaratik urrun dauden herritarrak euskarara hurbiltzea.
- Herritarrak herriko hizkuntza aniztasunaren jabe egitea.
- Hizkuntza ezberdinetako herritarrak harremanetan jartzea, norberarena aintzat hartuta, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza dela eta etokizunera begira bide horretan

sakondu nahi dela oinarritzat hartuta.

Auzoko egitasmoak auzotarrak –euskaraz bizi direnak eta auzokideak– euskaratik urrun bizi direnak elkartuz, joan-etorriko bidea lantzen du: “auzotarrek auzokideei jolasen bitartez euskarazko hitzak irakasten dizkie eta auzokideek auzotarrei beren kulturen berri ematen die”. Jolasak, sukaldaritza elkartrukeak, txangoak,... antolatzen dira komunikazio bideak lantzeko.



“Tolosaldean abian jartzeko egitasmo proposa da”

Topaguneko langile Mikel Ozaita ibartarraren iritziz, Tolosaldean garatzeko moduko egitasmoa da Auzoko. Bere hitzetan, “herritarrak inplikatzeko eskatzen du egitasmo honek eta, horri bultzada bat emanez gero eta instituzioen babesa jasoz gero, Tolosaldean abian jartzeko oso egitasmo egokia da”.

“Elebitasunarekin galtzeko guztiak ditu euskarak. Elebitasunarekin ez”. Sakonduko al zeniguke?

Modu grafiko batean azaldu, arrain handiak arrain txikia jan egiten du. Horregatik, arrain asko dauden ozeano bat, bakoitzak berea zaindu eta gordeko duena, eta guztion

9

Kristina Morales

Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Teknikaria da. Durangon Topaguneak "Euskara aniztasunean" goiburupean antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruak jarraitu ditu.

Hizkuntza eta migrazioa. Tolosaldeari dagokionean, zein erradiografia egingo zeniguke?

Etorkinek, normalean, gazteleraz hitz egiten dute. Mugikortasun handia dago eta, sarri, Estatuko beste leku batzuetatik etortzen dira hona. Ondorioz, gaztelerarekin lehen harreman bat izana izaten dute. Seme-alabak ikastetxera eramatean gerturatzeko dira, sarri, euskarara. Jatorri atzerritarreko haur eta gazteei laguntzeko irakasle bat egoten da ikastetxeetan. Espreski beraiei zuzendutako laguntza hori bi urtetan jasotzen dute. Normalean, ordea, 2 urte ez dira nahikoa izaten eta ikastetxetik kanpo adin txikikoek euskara ikasteko gunerik ez dago. Euskaltegiak, 16 urtetik gorakoen tzako baliabideak dira.

Euskara integraziorako hizkuntza al da?

Gure eskualdean euskara integraziorako herramienta izan daiteke baina ez daukate non landu. Euskara ikasteko oztopoak gutxitu egin behar dizkiegu: ordaindu beharra oztopo bat da, ordutegi oso



itxiak izatea beste oztopo bat da,.... Gauza horiek guztiak arintzen joaten garen adinean, beraiek ere euskarara gerturatzeko arrazoi gehiago izango dituzte.

Eta, euskaldunoi dagokigunean?

Euskaldunok ere prest egon behar gara jende berri honi euskara pazientziarekin eta modu berriak topatuz irakasleko, beraiekin euskaraz hitz egiteko,.... Etorkinak errazago gerturatuko dira euskarara beraien munduekiko errespetua sentitzean. Helburua euskalduntzea izanik ere, hori nola planteantzen den oso garrantzitsua da. Horren arabera gerturatu ala urrundu egingo dira.

arteko komunikazio eta kohezio hizkuntza bertakoa, gure kasuan euskara izango dena aldarrikatzen da.

Hori gauzatzeko Auzoko egitasmoa aurkeztu duzue.

Ereduzko proiektuak sortu ditugu Auzoko egitasmoarekin. Mintzalaguna egitasmoari jarraipena emanez, euskaratik urrun bizi direnak eta euskaldunak gune eta momentu berean elkartzea eta euskaraz komunikatzea da Auzoko egitasmoa. Egitasmo honen helburua, euskaratik urrun bizi direnak euskarara gerturatzea eta euskaldunok beste kulturak, hizkuntzak,.... ezagutzea da.

Bideak horizontala izan behar duela nabarmendu duzue.

Eskola formatuan baino komunikazioa modu horizontalean lantzea proposatu dugu. Jolasen,.... bitartez euskara barneratzea errazagoa dela iruditu zaigu. Halaber, grafia ezberdinak daude munduan eta, ondorioz, Euskal Herrira etortzen diren askok ere grafia ezberdinak dituzte. Modu informal batean, inor irakasle izan gabe, 4-5 euskaldun eta euskaratik urrun bizi diren 5-6 lagun elkartzea proposatzen dugu.

Nolatan sortu da egitasmo hau?

UEMA eta Topagunearen arteko elkarlanaren ondorio

izan da. Herri euskaldunetara kanpotik etorritako jendeari harrera egiteko eta euskalduntzeko planik ez zegoela ondorioztatu genuen. Horri aurre egiteko, munduko edozein herritik, baita Euskal Herritik ere, etorri eta euskaratik urrun bizi direnei zuzendutako egitasmoa prestatu dugu.

Auzotar gisa ari diren euskaldunak zerk bultzatu ditu egitasmo honetan parte hartzera?

Denetarik dago. Euskarari bultzadatxo bat emateko gogo eta beste herrialdeetako jendea eta kulturak ezagutzeko kuriosidadea duten herritarrek ari dira batik bat auzotar rolean. Egitasmo honek herri bakoitzean martxa ezberdina du: herri batzuetan bi astetik behin elkartzen dira, bestretan astean behin, astean birritan,.... Ordu eta erdiz elkartzen dira eta, euskaratik urrun bizi direnak, jolasen bitartez,.... euskarara hurbiltzea da helburua.

Ibarrakoa zara. Tolosaldean garatzeko egitasmo egokia dela iruditzen al zaizu?

Tolosaldean garatzeko oso egitasmo interesgarria da, eskualde euskalduna delako. Herritarrek inplikatzeko eskatzen du egitasmo honek eta, horri bultzada bat emanez gero eta instituzioen babesa jasoz gero, Tolosaldean abian jartzeko oso egitasmo egokia da.

Inaxio Agirre

Tolosarra, euskaltzalea eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuko aholkularia.

Zerk bultzatu zintuen Durangoko topaketetara?

Oso azkar mugitzen ari da gizartea. Gertaerak gertutik jarraitzeko nahiak bultzatu ninduen Durangora. Etorkinen eta migrazioen kontuek kezkatzen naute. Gure herrian eragin handia dute eta jasaten duten bizimodua ere, sarri, tragikoa izaten da.

Euskara eta migrazio teknikarien arteko harremana bultzatu beharraz hitz egin zen Durangon.

Orain arte egonkorrak, sistematikoak, ez dira izan harreman horiek. Egin beharreko eta sakondu beharreko betekizun bat da. Lehen lana gu beraiegana hurbiltzea da. Gu beraiek baino indartsuagoak gara eta, ondorioz, urrats hori ematea guri dagokigu. Beraien konplizitatea



ere behar dugu Euskal Herri euskaldun bat eraikitzeko.

"Gaztelera doan ikasi ahal da. Euskara ikasteko ordaindu egin behar da". Durangon esan zen. Zer diozu?

Euskal herritar guztiok jakin beharko genuke euskara. Hori ezin dugu egin, ordea, guri erderekin egin diguten bezala: inposatuz, bortxaz, mendeetako estortsioaz,.... Guztion arteko lorpen de-

mokratiko bat izan behar du horrek. Horretarako, euskara ikasteak baliabide unibertsala izan beharko du. Ez litzateke euskara ikasteagatik ordaindu behar, euskara ikastea hizkuntz komunitatean murgiltzea delako. Bide horretan, denok daukagu zer egin. Herri motibazio inteligente batetik abiatu beharko du berreuskalduntze prozesuak. Aldaketa soziolinguistikoz guztien motorra herri gogoak izan behar du. Eta, horretarako apustu sendoa egin behar dugu. Euskal Herri euskaldun baterantz eramango gaituen bide berri bat hartu behar dugu. Denon konpromisoa eta ahalegina behar dugu eta, horretarako beharrezko diren baliabide politikoak, ekonomikoak, soziolinguistikoak,.... jarri behar ditugu.



matilda
zure moda osagaien denda

Korreko Kalea, 3
Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apata industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Jexux Larretxea

“Makrobiotika elikadura prebentziorako onuragarria da”

Jexux Larretxea, aholkulari makrobiotikoak, makrobiotikako janaria prestatzen ikasteko ikastaroa Abaltzisketan eskainiko duela eta ospetsu bilakatzen ari den elikadura mota honetaz datu gehiago eskuratzeko asmoz aditua bera elkarrizketatu du Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz

Lehen galdera beharrezkoa da, zertan datza elikadura makrobiotikoa?

Filosofia bat da, bizitzeko modu bat. Bere helburua norbanakoak bere orekan mantentzea duena, norberak bere osasunaren eta eginkizunaren jabe izateko, inolako laguntzarik gabe orekatuta mantentzeko gai izatearena.

Zertarako izan daiteke onuragarria, zein pertsona motari hobekuntza ekarriko lioke?

Pertsona ororentzat lagungarria da. Begetalaz elikatu beharko ginateke, animaliak izanda eta gure bilakaera naturan oinarrituta, begetala izan beharko litzateke gure elikagai oinarritzkoa. Gaurko eguneko arazoa hortik oso urrunera joan garela da eta beharrezkoa da aurretik ematen zenera berriro itzultzea. Oso zaila da gaur-

ko gizarte honetan beste bide bat hartzea baina egin beharra dago. Gure kasuan, gerturatzen den jende gehiena gaixotasun bati aurre egiteko izaten da. Horren ordez, komenigarriena litzateke prebentzio moduan hartzea.

Jakiei dagokionean zer nolako jakiak dira oinarritzkoak eta zeintzuk dira ekidin beharrekoak?

Guk hasiera batean ez dugu inolako produkturik ekiditen. Esaten dugu garaian garaikoa jan behar dela, gorputza modu horretan egituratuta dagoelako; kontuan harturik neguan negukoa eta udaran udarakoa, urtaro bakoitzak berea behar duela.

Oinarritzkoa da ikustea zer nolako garrantzia duen gure barneko azidotasan alkalinoa orekatuta egotea eta hori gertatzeko derri-gorrezkoa da kontutan hartzea gure ahoa, hortzeriari erreparatzea. 32tik 20 pieza haginak eta hagin ondokoak dira, 8 hortz eta 4 letaginekin batera. Hori kontutan hartuta, mastekatzek garrantzi handia hartzen du. Alkalinitatea txistuaren bitartez lortzen dugu soilik, ahoa asko mugituz, horregatik garaiko elikagai orekatu eta begetalak jan beharko genituzke.

Begetala gure oinarri-oinarria izan beharko litzateke eta animaliak ordea, noizean behin eta neurri txiki batean jan beharko genituzke.

Makrobiotika elikadura izateaz gain bestelako ixaeradun mugimendua ere bere gain hartzen al du?

Filosofia ere bada. Nik mugimendu hau gaitz bati medio eza-gutu nuen. Bere puntu guztiak barneratu eta horretan ari naiz, 17 urte daramat hori lantzen. Gaurko gizartearen ez dago inolako arazorik makrobiotikan barneratzeko.

Gaixotasun bat dela medio makrobiotikan barneratu eta aurrera eraman nahi bada, makrobiotikaren atalen bat gogor jorratu behar izateaz gain, gure egunerokotasuna eta filosofia ere landu beharko dira. Jaten duguna garelako esaten da, eta hori egia da baina bestelako arloei ere erreparatu behar zaie; psikeak eta emozioak ere kontutan hartu behar dira.

Egunerokotasunetik gauza asko aldatu behar ditugu; gaurko estresa, aldaketak, lan arloan ematen diren jarrerak, baloreen galera, krisiak...

Gaixotasun bat izan zela medio barneratu zinen mundu honetan baina lehendik ba al zenuen makrobiotikaren ezagupenik?

Ez, ez nekien ezer horren gainean. Izan zen, nolabait gaixotasunaren ondorioz ate guztiak itxita nituela, zirrikitu bat topatu genuen. Prentsaren bidez, beste lagun batek aipatuta, elikatzeko beste modu bat bazegoela aipatu zidaten, oso gogorra baina eginez gero bazegoela aukera gorputza erabat garbitu eta garbituz gero osasuntsu egoteko.

Buru belarri jardun nintzen, oso ondo funtzionatu zuen, beste askori bezala. Pertsonak gaixotu egiten gara ohitura txarrak hartzen ditugulako, eta hori bera izaten da zailena, ohiturak aldatzea da gehien kostatzen dena.

Jendeak botika bezala izaten dela pentsatzen du; hau jan, bestea jan eta horrekin nahikoa izaten dela, sendatzea datorrela, baina ohitura asko aldatu behar izaten dira.

Zerk harritzen du gehien makrobiotika lehengoz entzuten duena?

Esnekiak eta gatza, azukre zuria, irin zuria; manipulatu dagoena, findurik dagoena gorputzarentzat txarra izatearena da gehien harritzen duena. Produktu horiek kendu edo ekidin behar direla esaten zaionean harritu egiten da pertsona.

Buruan erabat sartuta dugu esnea hartu beharra dagoela baina kontutan hartu beharra dugu, animalia bakarrak garela bestelako animalietatik esnea hartzen dugunak. Hainbeste grasa gorputzean sartzea ez da bidezkoa. Hori da gehiena harritu egiten duena.



izaten, kirol munduan emaitzak berehala nahi izaten dira eta gorputza eta giharrak poliki-poliki ohituz joan behar dira.

Gure kulturaren barneraturik dago gure elikadura okela, arraina eta arrautzen oinarriturik egon behar dela. Guk zerealak, lekariak jan behar direla diogu.

Zure kontsultan zer nolako pertsonak tratatzen dituzu? Ezberdintasun handia al dago dogoneko makrobiotikan barneratuta dauden eta ez dauden artean?

Denetik dago. Astelehen-ostiral artean bi kontsultatan aritzen naiz. Garbi ikusi nuenean osasunarentzat oso onuragarria zela filosofia horretan barneratu nintzen. Zabalduz joan da eta jendea gerturatzen joan da, 16-17 urte hauetan milaka pertsona tratatu ditut. Jendea arlo guztietatik dator. Jende asko dator kiloak hartuta dituelako eta kilo horiek sintomak ekarri dizkio, sintomaz gain baita konplexuak ere, baina tartean gauza serioak egoten dira, kolesterola kasu. Askotan partxe moduko erantzunak bilatu dituzten pertsonak dira; denok jakin badakigu jogurt magiko bat hartu eta dena konpontzea ezinezkoa dela.

Kirol munduan ere geroz eta zabalduago dago, moldaketa berezirik egin behar al da goi mailako kirolarientzat?

Ondo jatea beharrezkoa da, energia osoa eskuratzeko beharrezkoa da. Patxi Caminos adibide bat da; udazkenean errekor berria ezarri zuen Txindokin, elikadura makrobiotikoa oinarri hartuta. Egitea garrantzitsua da eta nola egin baita ere; gorputza ondo egotea da helburua. Ez da erreza

Abaltzisketa inguruan ez da lehen aldiz ikastaroa eskaintzen duzula, aurretik hitzaldiak ere eman dituzu. Jarraitzaile ugari al daude zonalde horretan?

Tolosaldea beti izan da txoko berezia makrobiotikarentzat. Tolosa, Alegia, Abaltzisketa, Amezketan inguruan jende auzart dago, beldurrik gabekoak. Hitzaldiak eman izan ditudanean, aretoa bete izan da eta oso gustura egon izan naiz. Azken aldiz honetan janari makrobiotikoa nola prestatzen den erakusteko deitu didate Abaltzisketan, aukera polita izango da. Hala ere, esatea bestaldetik, bertan parte hartzeko aukerarik ez duenak Donostian ere Zain Berri ekodendan hilabete lehen ostiralean hitzaldiak eskaintzen ditudala eta bertaratzeko aukera ere badagoela. ☺

Makrobiotikako elikagaiak ezagutzeko eta prestatzen ikasteko ikastaroa

Irakaslea: Jexux Larretxea
Noiz: Otsaileko lau larunbatean; otsailak 5, 12, 19 eta 26
Ordua: 09.00-15.30
Non: Abaltzisketako Larrunari Elkartea
Kostua: 180 € pertsona bakoitzeko
Goizean zehar prestatutako janarietan bazkaria egingo da elkartean.
Informazio gehiago Abaltzisketako Udalean

Beti Alai
garaian garaiko janariak eta arraikiak bereziak
Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

euskararen semaforoa
euskararen semaforoa
blogspot.com



Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Pirritx eta bere kideak itxaropen mezuak zabaltzen

Aiora Zulaika Irriaren laguna

Aiora Zulaika (Lasarte-Oria, 1975), duela 12 urtetik Zerkausi kale eguzkitsuan bizi da. Lehenik etxea erosi zuen eta ondoren, bikotekidea ere Tolosan aurkitu zuen. Arte Ederretan lizentziatua, Lasarte-Oriako Ttakun Euskara Taldeko partaide izanik, herrian antolatzen zuten euskara maratoia zela medio topo egin zuen ondoren taldekide bihurtuko ziren pailazoekin.

Felix Aiestaran

Hasieran Takolorekin eta orain Porrotx, Marimotots eta lan talde zabalarekin, hamahiru urte egin ditu Aiorak, Pirritx bihurtuta, Euskal Herriko haurren bihotzetan irriak zabaltzen. Urte eta erdi oholtzatik urrun egon da, lehendik zuen Txomin semeaz gain, Lizar eta Koikili bikiak izan berri ditue-

lako. Amatasunaren bizipen zoragarria era naturalean islatzeko, Pupu eta Lore umeak taularatu dituzte, *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizun berria kaleratuaz.

Katxiporreta pailazo familia handituta, Elkar eta Berriarekin batera Irrien Lagunak kluba egitasmoa aurkeztu dute. Bere

bi adar nagusiak *Irria Aldizkaria* eta *irrienlagunak.com* webguneak dira.

Pirritx berriro taula gainean dugu jendearekiko konpromisotik abiatuta, gogo eta ilusioz gainezka, irrien lagunak Euskal Herri osoari aurkezten. Otsailaren 4an Ibarran izango dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots

eta martxoaren 26an Tolosako Leidorren.

Zubietako zalditegia inguruan, nolako haurtzaroa izan zenuen Lasarten?

Aitona-amonen etxea ez da baserria, baina untziak, oiloak ... izaten ziren eta baserritar batekin ezkonduko nintzela esaten nuen. Oroitzapen txarrak ahaztu eta onekin geratzen zara. Haurtzaro zoriontsua izan nuen. Amaren armairutik arropa zaharra hartu eta nire bi ahizpekin jolasean aritzen nintzen.

Zure burua kristautzat jotzen duzu...

Bai, heziketa kristaua jaso izan dut; aldi berean hezkuntza ezker-tiar eta euskalduna jaso izan dut. Kristautasuna balore bat gehiago bezala hartzen dut, ikuspegi humanista batetik. Beti esan izan dut Kristo ezkerrekoa zela. Ez dut gustuko elizaren eraketa eta are gutxiago azken aldian oinarritik aldentuaz hemen hartu duen bidea.

Nola etorri zinen bizitzera Tolosara?

Kasualitatez.... Duela hamabi urte diru pixka bat aurreztu eta independizatzeko gogoia nuen baina Lasarten ez nuen aurkitzen etxerik. Halako batean amak, Zerkausi kaleko etxe eguzkitsua eta merke baten iragarkia erakutsi zidan. Tolosara etorri ginen



"Walt Disney-k ematen dizkigun ereduetatik kanpo, geureak zabaldu nahi ditugu."

ikustera eta halaxe erabaki nuen Tolosan bizitzea. Egutero Zal-dibiara entseatzera joateko ere ondo zetorkidan. Amak etxea zaharkituta ikusi zuenean, damutu egin zela uste dut, baino gaur egun berrituta dago. Halaxe esan nion: hauxe izango da nire etxea. Laguna ere Tolosan egin nuen. San Joanetan nire lagun gehienak Hernanira joaten ziren, baina nire lagun min batek laguna hemengoan zuen eta Tolosako San Joanetara etortzen ginen.

Txomin, Lizar eta Koikili semeak tolosarrak dira... Nolako esperientzia izan da bikiak izatearena?

Bai, oso tolosarrak dira. *Lanen* eta *etxen* moduko Tolosako euskara erabiltzen du Txominek. Umeak izateko gogoia genuen, bi etorri zaizkigu, oso ondo, baina oso gogorra da, lan handia egin behar delako. Malabarista xamarra izan beharra dago familia eta lana uztartzeko. Haurtzaindegia asko aipatzen da, baina horretaz gain gauza asko gelditzen dira lotzeko eta hor aitona-amonei eskertu eta aitortu egin behar zaie egiten duten lana.

Zenbat denbora egin duzu taulatutik kanpo?

Hamasei hilabete egin dut lan eszenatokitik kanpo. Irailean prestatzeko ekin eta azaroan hasi ginen. Amatasuna oso ondo dago, baina lanean gogo biziaz hasi naiz. Ez nuen uste horrenbeste gogo eta indarrez bueltatuko nintzenik. Saioren ondoren nekatuta baina oso gustura eta indarberrituta ateratzen naiz.

Pirritx bihurtzeko bidea nolakoa izan zen?

Pixkanaka, paper txikiak egin ez hasi nintzen. Marimotots antzerkia irakasten aritzen zen gaztetxean eta berarekin aritu nintzen. Bestetik Lasarteko Ttakun euskara taldeak berrogei orduko euskararen maratoia antolatzen zuen eta bertan aldamenean izan nituen Takolo eta Porrotx. Halako batean, berriekin aritzeko aukera eman zidaten. Pirritxek asko eman dio Aiorari eta Aiorak Pirritxi ere izugarri eskaini dio. Euskara eta alaitasuna uztartzen saiatzen ginen euskara taldean eta Lasarten Tolosan haineko aukera izan dut eguneroko bizimodua

ZETA
MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK
Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

kutxa

**ARTE
TAILERRA**
HAURRAK ETA HELDUAK
Matrikula zabalik
Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

**ZABALA
DESGUAZEAK**
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

euskara hutsez egin ahal izateko. Nire Lasarteko mundua euskalduna zen, erabat.

Gaurko jendartean zein da pailazoen tokia?

Pailazo ugari dagoenez, Euskal Herrian zorte handia dugu. Euskaldunok umorearen ikuspegi zabalagoa dugu beste tokietan baino. Gizarteko edozein gai gure begien filtroetatik pasa eta itxaropen mezuak zabaltzeko modua da gure lana.

Zein dohain izan behar ditu pailazo batek?

Aurrean dagoenaren lekuan jartzen jakin behar du eta dena berdinetik berdinerara landu behar du.

Berrogei urte gorakoek Gabi, Fofo, Miliki pailazo erdaldunak gogoratzen dituzte. Ondoren, euskaraz Txirri, Mirri eta Txiribiton datozkigu burura. Zein da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen aportazioa?

Hasieran hiru gizonezko ziren. Gero emakumezkoa nahita sartu zuten. Alaitasunetik eta euskaratik abiatuta, haur eta helduak aurrez aurre ikustean guk nahi ditugun gaiak joratzeko aukera paregabea landu nahi izaten dugu. Paper hezitzaile horretan gure taldeak bide jakina hartu du eta jendearengana iritsi egiten da.

Nola aukeratzen dituzue gaiak?

Gaiak egunerokotasunetik hartzen ditugu: egunkaria irakurri edo inguruko bati gertatu zaionetik. Minbizia duten haurrekin urtero izaten gara. Maskara jarrita, hodiez josita dagoen haurrak gu animatzen gaituzte, badugu landu ahal izateko gai berri bat.

Pupu eta Lore umeak sortuaz, ama izatearen gaia taularatu duzue...

Umeek oso ondo ulertu dute jaiotza, biki asko etortzen dira saioa ikustera, tirita eta guztia jarrita.

Hainbat udalek zuen saioei uko egitea, nola hartzen duzue?

Pirritx neska izateak beste kolore bat ematen dio pertsonaiari.

Hegoaldeko lau hiriburutako udalek ez digute deitzen saioak egiteko. Zorionez, lagun asko ditugu eta elkarlanean aritzeko aukera ematen digu. Isunak ordaintzeko dirua behar dutela eta Olentzeroren lagunek deituta joaten gara Iruñera. BECn hamasei mila lagun bildu ziren. Lagun asko ditugu, baina oztopoak ere baditugu.

Pirritx emakumezkoa izateak zein gehigarri ematen dio?

Porrotxek berak esaten du... horrenbeste neska taldean ari garenetik bera ere pixka bat neska sentitzen dela; gustatzen zaiola, alegia. Pirritxek aurten amatasunaren gaia atera du. Pirritx oso femeninoa, arrosa da, kluxe femeninoekin oso lotua dago, baina aldi berean oso bihurria da. Marimotots ez da horren femeninoa... Porrotx astapotroa da, baina oso sentibera ere bada eta umeari titia eman nahi dio... Pirritx neska izateak beste kolore bat ematen dio pertsonaiari.

Zer eman diozue ikusleari eta zer jaso izan duzue ordainetan?

Ikusleari asko eman diogu, baino jaso gehiago egin dugu. Gure inguruko gaiak landu eta itxaropenezko mezuak zabaltzeko modua nahi ditugu. Oso maitatuak sentitzen gara.

Haur, guraso, aitona-amona parte hartzaileak bilatzen al dituzue?

Denok gara parte hartzaileak. Guk zortea dugu, herri batera joan eta txalo zaparrada batez hartzen gaituzte eta denak parte

hartzeko prest daude, lehen minututik. Hori eskertzekoa da. Denon partaidetza bilatzen dugu, horrela lan osatuagoa egingo dugula uste dugu.

Musikak zein toki du zuen emanaldietan?

Musikak gure emanaldietan toki handia du, noski. Azkeneko emanaldiaren ondoren, norbait galdezka zegoen gure saioa musikal bat ote zen. Zuzenean kantatzen dugu, musikak garrantzi handia du, baina gure saioa antzerkia da. Musika barruraino sartzen zaigu denoi. Taldean zorte handia dugu, tartean Xabi Zabala moduko musika konposatzaile zarautzarrak izateaz. Gai bati buruzko burutazioa egin ondoren, gure kezka eta ametsei berak jartzen die musika lehenik. Beti asmatzen du, behar izaten dugun musika osatzen eta ondoren egiten ditugu kantuen hitzak.

Nola osatzen dituzue gidoiak?

Gehienetan geuk osatzen ditugu eta umore puntua entseguetan ateratzen zaigu. Horrelaxe, urtean 125 saio inguru ematen ditugu.

Zer da Irrien Lagunak Kluba?

Irrien Lagunak Kluba hutsune bat betetzeko sortu da. Komunikazio gunea da. Webgunean harpidedun egin daiteke. Proiektu asko dugu esku artean eta hau abiapuntua izan da. Garai batean Ipurbeltz zegoen baino gaur egungo gazteek ez dute ezer. Walt Disney-k ematen dizkigun ereduetatik kanpo, geureak zabaltzeko nahi ditugu. Gure ereduak lantzen saiatuko gara. Hik Hasikoekin, gurasoei begira ere zerbait egin nahi dugu. Irakasleei eta beste hainbati begira egitasmo ugari dugu.

Zintzilik



Txarli Gesteira
Internet erabiltzailea
berriketan.info/txarli

Euskaltube bizirik!

Euskaltube (www.euskaltube.com), euskarazko lehenengo plataforma, 2007an sortu zen, eta hiru urte betetzear zegoenean, 2010eko irailean "itxi" zen. 2007an sortu zenetik, ia 2.000 erabiltzailek 6.000 bideo inguru sare-ratu genituen bertan, milaka bisitari izan ditu eta milioika orrialde zerbitzatu ditu. Baina zoritxarrez, 2010eko udara ezkerro, bertan behera geratu da webgunea.

Bideoak ez ezik, audioak sareratzeko aukera ere bazuen plataforma honek, eta hainbat izan dira bertan bere edukiak partekatu dituzten irratisaio eta norbanakoak.

Arazoa, euskarazko hedabide askok jasaten dutena, ekonomikoa. Euskaltube, hasiera borondatezko lanetik abiatutako proiektu bat izan zen, baino orain Euskaltube.com egitasmoari beste di-

mentsio bat eman nahi diete.

Horregatik, webgunearen funtzionamendu egokia, sistemaren eta edukien mantentzea eta, azken finean, egitasmoaren etorkizuna bermatzeko, finantzaketa sistema egonkor bat behar du Euskaltube.com-ek.

Finantzaketa bilatzeko babes kanpaina abiatu dute, finantzaketa horretan parte hartu nahi izanez gero, <http://euskaltube.com/bizirik> helbidean argibide gehiago aurkituko dituzue.

Bideoak partekatzeko plataforma garrantzitsuenen ezaugarriak:

Youtube: 15 minutu (denbora luzera mugagabea izango du laster), 2 Gb arteko artxiboak, definizio altua (HD), 3D, azpitoluak gehitzeko aukera. Iragarkiak, telesailak, etab. onartzen ditu...

Vimeo: Denbora luzera

mugagabea, 500 Mb arteko igoera astean, definizio altua (HD), erabiltzaileak sortutako edukiak soilik onartzen ditu. Ez ditu onartzen telesailak, iragarkiak eta copyright-ik izan ditzaketen bideoak.

Blip.tv: Denbora luzera mugagabea, 1 Gb arteko artxiboak, definizio altua (HD),...

Euskaltube: (Martxan zegoen bitartean) Denbora luzera mugagabea, 500 Mb arteko artxiboak, audioak igotzeko aukera, "elbia" (bideoetan azaltzen den logoa) pertsonalizatzeko aukera. Bertan sareratatutako eduki guztiak lizentzia libreekin partekatzen dira.

Ea laster Euskaltube berriro martxan ikusten dugun.





'Jeiki, jeiki!' Tolosako herritarren iñauteriak protagonista

Nestor Ardana: "Gerra aurreko argazki onak topatu ditudanean txundituta geratu naiz"

Jeiki, Jeiki! 2011 erakusketak bere ateak zabalik ditu. Nestor Ardanaz tolosar argazkilariak diseinatutako eta zuzendutako egitasmoa da eta eszenatoki moduan Aranburu Jauregia, Tolosako 215 dendetako erakusleihoak eta Topic Anbigu gunea izango ditu. Nestor Ardanaz komisarioarekin solasean aritu gara erakusketa beraren antolaketaz.

Naiara Roldán de Aránguiz



Zertan datza Nestor Ardanazen lana 'Jeiki, jeiki!' erakusketako komisario gisa?

Ni erakusketako koordinatzaile naiz, ia behatzailea. Nire ikuspegia jarri behar izan dut. Kasu honetan, kanpotik ikustea tokatu zait,

azken urtetan ere argazkilari gisa aritu naizen moduan. Normalean informazioa jasotzen aritu izaten naiz eta oraingoan ere berdina gertatu da; jendearen materiala ikusi, irudi zoragarriak topatu, iñauterien gaineko istorioak jaso,

jendearen kontakizunak sentitu ditut... Aukeraketa egitea oso zaila da, berez istorioa eta irudi guztiak jarri nahi izan ditugu baina oso zaila da. Aukeraketa ere egin beharra dago zein den irudi hobe, esanahi hobe zehaztuz.

2.000 argazkitik gora jaso dira herritarrengandik, esperotako aurreikuspena bete al da?

Deialdia egin zen garaitik hona kopuru logikoa da baina jasotze prozesua bukatu ez dela kontutan hartuta kopuruak gora egingo du. Gaur, esaterako, gizon batek motxila bat ekarri dit argazkiz bete, urtez urte zehaztuta, eta gehiago ere ekarriko dituela aipatuz. Deialdia ireki zenean pertsona bakoitzeko 5 argazki jasoko zirela esan genuen; argazkilari profesional askoren kasuan 3 bat aurkeztu dituzte baina bakoitzak milaka argazki izango ditu. Zehazteko beste kasu bat; Agustín Jauregik 8 argazki maleta ekarri dizkit eta oraindik denak

eskaneatu gabe daude. Hori dela eta, 2.000 argazki esan badugu ere askoz gehiago izango dira, oraindik material asko eta asko eskaneatu gabe dago eta.

Aukeraketa egiteko orduan zer nolako irizpideak izan dituzu oi-narri?

Egia esan denak sartzen saiatuko gara, proiektzioen bitartez bada ere. Jasotako argazki guztiekin proiektzio bat osatu nahi dugu. Aukeraketari dagokionez, panel batzuk osatu dira urtez urte, hamarkadaz hamarkada sailkatuta. Bestalde, argazki handi batzuk ere badaude, gaur egungoak, momentu fuertak irudikatzen dituztenak. Baina aukeraketa aldatzen doa, horien ordez berriak ere jarriko dira. Kopurua bikoiztu egingo da.

Dagoneko astebete baino gehiago igaro da inaugurazio egunetik hona, nolakoa izan da orain arte herritarrengandik jasotako erantzuna?

Oraindik goiz da, denbora behar da materiala ondo ikusteko. Bideoak du indar gehien; 70 minutuko bideo horretan Tolosako jendea elkarriketatu dugu, iñauterien harira gai ezberdinen inguruan. Nik uste momentuz pertsona gutxi ikusi duela osorik. Denbora behar da erakusketa ondo ikusi ahal izateko eta behin baino gehiago joatea ere beharrezkoa da, materiala 15 egunez behin edo aldatzen joango da.

Zer nolako garrantzia du erakusketa bera eszenatoki ezberdinetara (Aranburu, Topic, Tolosako dendetako erakusleihoak) zabaldu izana?

Erakusketa Aranburutik herrira zabaltzea garrantzitsua da. Argazki asko daude eta denak Aranburu bertan jartzea ezinezkoa da; dendetan 215 bat argazki jasoko dira, garai ezberdinetakoak, ma-

terial asko dagoenez zabaltzea da kontua. 215 argazki horiekin 8 galdera joko prestatu dira, kolore ezberdinekin zailtasunaren arabera zehaztuta. Topic-en ere 25 argazki ikusgai daude, denak txotxongiloekin zerikusia dutenak.

Prestaketa garaian iñauterien gain sakontzeko aukera izan duzu, topatutako informaziotik zerk harritu zaitu gehien?

Gauza askok. Adibide bat jar-tzearen, gaur egun gerra aurreko iñauteriez jende gutxi hitz egitea dauka, jende gutxi hitz egiten digu eta hori dela eta material askorik ez zela egongo pentsatu nuen, orduko argazki onak topatu ditudanean, argazki sorta potentia, txundituta geratu naiz. Orain dela 80 urte zezen plaza gainezka ikustea harritu baino gehiago hunkitu egin nau, ilusioa egin dit.

Iñauteri zalea naiz, baina behatzaile bezala, ez ditut parodiak egiten, ez dut aktiboki parte hartzen, eta hortaz kanpotik ikustea asko gustatzen zait.

Xabier Garikano adibide bat da, berak kontatutako istorioekin gozatu egiten duzu, kontutan izanda 80 urte dituela eta 14 urte zituenetik parte hartu duela; bere albumak ikusiz txundituta gelditzen zara! Zer nolako argazkiak, zer nolako kalitatea eta nola di-tuen jasota gainera!

Argazkilaritza ikuspuntutik zer nolako balioa eskaintzen du erakusketak berak?

Nire argazkiekin bakarrik ez nuen erakusketa antolatu nahi, askotan eskatu badidate ere; nire argazki gutxi jarri ditut, baina jarritakoak kalitate oso onekoak dira; zezen aurreko momentu hori garrantzitsua da, eta txupinazoa, jende pilo azaltzea, garrantzitsua da.

Bestaldetik ere 8 postal atera ditugu. Kalitate aldetik oso onak

Jeiki, Jeiki!

Aranburu Jauregia

Urtarrilak 21- Martxoak 20.
Asteartetik igandera.
17.30-20.30.
2.000 argazki baino gehi-go zein herritarren tes-tigantzak. Iñauterietako mo-zorroetan erabilitako osagarriak ere ikusgai. Ar-gazkiak euskarri ezberdine-tan ageri dira; handituak, panelak, muralak, forma eta tamaina ezberdinetan zein irudien proiektzioak. 70 to-losar baino gehiagori egin-dako elkarriketak biltzen duen bideoa.

Tolosako Dendetako erakusleihoak

Urtarrilak 28 - Martxoak 20.
215 dendetako erakus-leihoak.
Dendetan erakutsiko diren argazkiak kolore ezberdinak izango dituzte, identifika-zio modura. Kolore horiek, galdera-joko ezberdinetan parte hartu ahal izateko bereizgarri izango dira. Era berean, jokoaren galderen erantzunak erakusleho ho-rietan bertan aurkituko dira.

Topic

Astelehenetik ostiralera
11.00-13.00 eta 17.00-19.00.
Larunbat eta igandetan
12.00-14.00 eta 17.00-20.00.
Tolosako Iñauterietako iru-diak, non txotxongiloak edo era ezberdinetako panpinak ageri diren, mo-zorroaren osagarri modura.

dira. Adibidez, 1930eko sorta onak ikus daitezke, 2 metroko pa-retan jarriko genituzkeenak baina leku aldetik ezinezkoa da.

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

• Gortinak
• Edredoi nordikoak
• Mantak
(bat erosita beste bat opari)
• Ohazalak
• Alfonbrak etab.

Donostia
San Martín, 16
943 425 886-943 420 187
Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947
Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414
20400 TOLOSA
Gipuzkoa

irakurri
entzun
IkusiHiru Mariak
Arantxa Urretabizkaia

Kalera irten, egunero irte-
ten ginen, are alargundu
osteko neguan eta udaberri
euritsu hartan. Gorrik buru
belarri sinesten du onura-
garria dela kalera irtetea,
onuragarri ibiltzea eta, era
berea, jendea ikustea, gure
etxean egunero bisitaren
bat bagenuen ere. Hori
bai, protesta egiten zuen
euria zen bakoitzean.

Infernuko hauspoa
Korrontzi & Oinkari Dantza Taldea

Korrontzi eta Oinkari dan-
tza taldeak musika eta
dantza uztartzen dituzte
euren ikuskizun berrian.
Berrogei dantzarekin
batera zuzeneko ikuski-
zun erakargarria.

778 La Chanson de Roland
Olivier van der Zee

Filme dokumentala. Euro-
pako milioi pertsonen La
Chanson de Roland eskolan
ikasi dute. Baina 1200 urte
beranduago han konta-
tzen diren abenturak egia
al dira? 778 - La Chanson
de Roland iraganera egin-
dako 1200 urteko bidaia
da, Europako kulturaren
atal literarioan ezaguna
den jatorria eta esanahia ezagu-
tzeko.

Otsailaren 4tik 18ra bitarteko hitzordua

hitzordua

Ikuskizuna

Robot Maitea

Marie De Jongh. Otsailaren
5ean, larunbatean, Tolosako
Topic Aretoan, 18.00tan. Ro-
bot Maitea antzezlanean bi
izaki bereziren gorabeherak
kontatzen dira. Itxura batean
pozarren bizi dira. Giza-jokae-
rak errepikatzen dituzte behin
eta berriro eta horrela jardun-
go lukete aurrerantzean ere
baina... halako batean, haieta-
ko batek matxura izango du.

Batuta

Otsailaren 12an, larunbatean,
18.00tan. Helduak 7 € eta hau-
rrak 4 €. Taun Taun. Txotxongi-
loak. Geltoki bat, iristen den
tren bat, jendea alde batetik
bestera, maletak batetik bes-
tera, berriro irteten den tren,
jende gehiago, maleta bat ba-
karrik gelditzen da...

Pailazo
ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Otsailaren 4an, ostiralean,
Ibarran, arratsaldeko 18.00tan.
Eneko Aritzaren lagunak eta
Bartola Jai Alternatiboen Ba-
tzordeak antolatuta.

Galdera-
jokoaGaldera-Jokoa, Jeiki Jeiki!
Iñauterietako erakusketa.

Otsailaren 5ean, arratsaldeko
17.00tan, Aranburu Jauregiko
atarian. Jokoaren koordina-
zioaren ardura Tolosako Ai-
sialdi Taldeek hartuko dute.
Taldeak adinaren eta zailtasu-
naren arabera osatuko dira. Jo-
lasean joan-etorrian eta den-
daz denda jokoa osatzen aritu
eta gero, amaieran merienda
bat eskainiko zaie Aranburu
Jauregian.

Santa Ageda

Santa Ageda Bezpera eskea
Ibarran. Otsailaren 4an, os-
tiralean. Izaskun auzotik ba-
rrera burutuko da: Artetxe,
Izaskungo Plaza, Elutzun, Txu-
lone, Bidabe, Aldani, Intsalus,
Bizkaietxe, Zumartetxe, Argi-
nartetxe, Ibarburu, Ibarrondo
eta Bizkardo. Hauspoa Kultur
Elkarteak antolatuta.



Ospakizunak

Zuhaitz Eguna.

Otsailaren 5ean, larunbatean
Tolosan Zuhaitz Eguna ospa-
tuko da.

Ibarrako Sendi-Ekintza Elkar-
tearen Eguna

Otsailaren 5ean, larunbatean,

Ibarrako Plazan ospatuko da.
11.00 Eskulan tailerrak hau-
rrentzat, xaboi burbuilak eta
tailer ugari.

12.15 Haur jolasak

15.30 Eskoba txapelketa. Egu-
nean bertan eman daiteke ize-
na edo elkarteko zerrendetan.
16.00 Kross herrikoia

17.30 Txokolatada eta sari ba-
naketa18.30 Sagardoaren txiriaren
irekiera. Luntxa, bertsolariak
eta musika

Ikastaroak

II. Sukaldaritza Ikastaroa
Gizonezkoentzat

Berdinbidek antolatuta. Otsai-
laren 1, 3, 8 eta 10ean. 19.30
-21.30 bitartean. La Jara el-
kartean. Hasierako bi saioetan
Tolosako Hernialde Jatetxeko,
Felix Garrido arituko da eta az-
ken bietan Amasako Iturrigoxo
jatetxeko Jokin Zabala.

Hip Hop Dantza Ikastaroa

Otsailaren 12an, larunbatean.
11.00-13.00 bitartean. Asvi-
neneak antolatuta. Ikastaroa
Nerek eskainiko du. 20 € or-
daindu beharra izena emate-
ko; asvinenea@gmail.com edo
665 738 081 telefono zenba-
kian informazio gehiago.

Afrikar Dantza Ikastaroa

Otsailaren 5ean, larunbatean.
16.30-19.00. Asvineneak an-
tolatuta. Ainhua Agirreza-
balak eskainiko du ikastaroa

hau, hasiberri eta maila ertai-
na duten ikasleei zuzendu-
ta. Bazkideek 15 € ordaindu
beharko dute eta bazkide ez
direnek 20 €. Izena emateko
653 732 709 telefono zenba-
kian edo ainhooaagi@gmail.
com helbide elektronikoaren
bitartez.



Bertso Afaria

Hirukideko Bertso Afaria

Otsailaren 18an, ostiralean.
Sukalde Elkartean, bertan
izango dira Bixente Gorostidi,
Unai Muñoz eta Anjel Mari
Peñagarikano bertsolariak. Sa-
rrerak Hirukideko idazkaritzan
eskuragai, 943651109 telefo-
no zenbakian.

Manifestazioa

Otsailaren 12an, larunbatean.
“Sasi guztien gainetik, euskal-
dun eta burujabe” lelopean
egingo du EHE-k. Jose Luis
Alvarez Enparantza Txillarde-
gi omenduko da. Donostiako
Boulevardetik abiatuko da
arratsaldeko 17.00etan.

Tolosaldean
[IKASTN]
Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako
zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgu-
nean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan
zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Hip-hop dantza ikastaroa	2011/02/12	2
Internet + e-administrazioa	2011/02/15	20
Automatismo neumatiko eta elektroneumatikoak	2011/02/21	40
CNC bidezko fresagailu programazioa	2011/02/21	46
Kalitate-kudeaketa	2011/02/21	20
Elikagaiak manipulatzeko agiria lortzeko ikastaroa	2011/03/15	6

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA Posta-e: info@ikastn.com
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 4 Tolosa M ^a Isabel (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 9 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Astelehena, 14 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Larunbata, 5 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 10 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Asteartea, 15 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra
Igandea, 6 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Ostirala, 11 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Asteazkena, 16 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 7 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Larunbata, 12 Olarreaga I. Ur eta Argia (Tolargi) (Korreo kalea, 2) Tolosa	Osteguna, 17 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Asteartea, 8 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Igandea, 13 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 18 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernialde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Medikua	Udaltzaingoa	943 675 858
Baliarrain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
	lurreamendi egoitza	943 670 325
	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Berastegi-Elduain	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Bidegoian		943 651 425
Medikua	Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 673 022
Osasun etxea		943 675 320
Ikaztegieta	Ertzantza	
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 337
11ko otsailak 4

KEY-LAN
SARRAILGINTZA
Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*
GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hertz-protetikotitutaduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minututa. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Taminaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txekor idiskoa erosiko nuke zezenetarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337

Horoskopoa

Otsailaren 4tik 18ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Mugimendurako egunak, ekimenez jokatzeko ezinbestekoa. Arrakasta lortzeko bidea lana, esfortzua eta borroka dela ez ezazu ahaztu. Bizitzak jarritako proba zail hori gainditzeko indarra izango duzu. Benetako lagunaren laguntza jasoko duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Oztopo garaian murgildurik jarraitzen duzu, baina beti ere lagunaren indarra zurekin duzula. Lan kontuak zaildu egingo dira, porrotik ez da izango baina zailtasunak agerian geratuko dira.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Benetako garai positibo baten atarian zaude, alor guztietan zorteko izango zara, bereziki lan munduari dagokionean. Ekimen berriak martxan jartzeko une ezin aproposagoa.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Une gazi-goza biziko dituzu, aukerei dagokionez gozoa izango da baina arazoak sortzeko aukera handia dago. Ekonomi kontuetan erreparratu beharra, espero ez diren gastuak azaltzeko aukera. Lanarekin harremana duten bidaiak zoriona ekarriko dizute.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Ekintza egunak izango dira. Ausardia eta adorea zure armak izango dira, edozein arriskuei aurre egiteko gaitasuna izango duzu. Erlazioek inoiz baino garrantzi eta eragin gehiago izango dute. Sentimendu alorrean aldaketak izango dira.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Lanean eta erantzukizunetan murgilduriko egunak. Egunerokotasunak eta diru arazoak denbora gehiegi kentzen dizute. Bestaldekik, maitasun kontuetan garai politak datoz. Baliteke lan kontuetan ordu gehiegi eman behar izatea baina maitasunak bere saria ekarriko du.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Egun hauetan zorteko izan eta arazoak erraztasunez konponduko dira. Energia jaritasunez sortu eta alaitasun eta poztasun garaia iritsiko da, egun errazak izango dira.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Garai garrantzitsu bati ekitera zoaz, arrakastaz beteriko egunak izango dira. Etxeko kontuek atentzio berezia eskatuko dute, honek bere eragin positiboa izango du familia erlazio eta bikote bizitzan. Egun aproposak etxean lan egiten dutenentzat.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Garai benetan zoriontsua. Bizitza pertsonalak behar zuen tokia hartu du azkenean; horrek ongizatea, sosegua eta barne poza ekarriko dizkizu. Bidaiaren bat egiteko garai aproposa.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Garaitu beharreko borroka aldia dator. Hala ere, honek ez dizu zailtasun gehiegi sortuko. Egun hauetan lan kontuei erreparratuko diozu gehien bat. Arrakasta pertsonal eta profesionalak iritsiko dira.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Urte mugitua izango baduzu ere, otsaila hasiera positiboa izango da. Ekimen berriak martxan jartzeko une aproposa da; bai profesionalak eta baita sentimentalak ere. Amaiera polita aurreikusten da.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Behar zenuen aldaketa garaia hemen duzu. Negu honetatik hasita hobekuntza aldaketa izango duzu, eragin positiboak zure inguruan izango dira. Egun ederrak biziko dituzu. Pozik eta itxaropentsu egongo zara.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

samaniego
hemi ikastetxea

telefonoa
943651063
webgunea
www.samaniego-tolosa.com
e-posta
012244aa@hezkuntza.net

:: Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
:: Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)

07:30etik aurrera
Haur Txokoa

ORIXETOLOSA

:: Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza
:: Batxilergoak

telefonoa
943651387
webgunea
www.orixe.net
e-posta
012980aa@hezkuntza.net

Euskaratik eta Euskaraz



Matrikula epea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra



HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40 URTE | eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

2,13 Km²
hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

700.000 LANGILE
aritu ziren hori eraikitzen

7.000 IRUDI
lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetako tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 años
en TOLOSA

www.funerariavascongada.com 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

